

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala**

Homologaturik dauden euskaltegi edota barnetegietan, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Bermeoko biztanleentzako 2020. urterako dirulaguntzen deialdia. BDNS (Identif.): 533396.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/533396>):

2020ko azaroaren 10ean izandako batzarrean Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak Homologaturik dauden euskaltegi edota barnetegietan, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Bermeoko biztanleentzako 2020. urterako dirulaguntzen deialdia onartu duela jakinarazten da, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean bere iragarkia argitaratzeko jartzen da.

Bermeon, 2020ko azaroaren 13an.—Alkatea, Aritz Abaroa Cantuariense